

Euskadi Osorako Erabakiak

Disposiciones Generales del País Vasco

KULTURA ETA TURISMO SAILA

268

Urtarrilaren 24.eko 9/1989 Dekretua, Kirolaren Euskal Kontseiluaren egitura eta egitekoak arautzen dituen.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Kirolaren eta Gorputz Kulturaren otsailaren 19ko 5/1988 Legeak, IV. Izenburuan, IV. Atalburuan, Kirolaren Euskal Kontseilua sortarazten du. Legeak dioenaren arabera, Kontseilua organo gorena izango da kirol alorreko aholkularitza, kontsulta, jarraipen eta eztabaidarako; Organo horrek helburu hau izango du: kirol alorreko politika egin eta garatzeko bidean, Euskal Herriko Administrazio Publikoen koordinazio eta elkarlanerako, eta kirolariek beren erakunde ordezkatzailen bitartez eskuhartzeko tresna edo baliabide izatea.

Aipatu Legearen 56.2. Atalak ezartzen duenez, Kirolaren Euskal Kontseilua honako kide hauek osatuko dute: Eusko Jaurlaritzak izendaturiko adituek -beren kompetenziaren arabera-, Euskal Herriko Autonomi, Foru eta Udal Administrazioetako ordezkariak eta baita Kirol Federazioetako ere.

Legeak ezartzen du, halaber, Kontseiluaren osakera zehatza, kideak izendatzeko sistema, antolaketa, funtzionamendu-erregimena eta eskumena arauz finkatuko direla; horren ondorioz,

XEDATU DUT:

1. *Atala.* Gorputz-kirol politikaren, eta horri datzekon zerbitzuen finkatze, garapen eta funtzionamenduari dagozkion gaietarako, Administrazioaren aholkamendu, kontsulta, jarraipen eta eztabaidarako organo gorena da Kirolaren Euskal Kontseilua.

2. *Atala.* Kirolaren Euskal Kontseilua Kultura eta Turismo Sailari adskribituko zaio.

3. *Atala.* 1. Kultura eta Turismo Sailburua izango da Kirolaren Euskal Kontseiluko buru, eta honako kide hauek osatuko dute:

- a) Kultura eta Turismo Sailburuak, kirolaren alorrean eskarmentu handia dutenen artean izendaturiko bi bokal-adituk.
- b) Gazteria eta Kiroletarako Sailburuordeak.
- c) Kiroletarako Zuzendariak.
- d) Eusko Kirol Institutuko Zuzendariak.
- e) Osasunketa eta Kontsumo Saileko ordezkari batek, bertako Sailburuak izendatua.
- f) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkari batek, bertako Sailburuak izendatua.
- g) Euskadiko Autonomi Elkarteko lurralde eremuko Foru Diputazioetako hiru ordezkariak, Kultur Diputatuek izendatuak.

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

268

DECRETO 9/1989 de 24 de enero, por el que se regula la estructura y funciones del Consejo Vasco del Deporte-Kirolaren Euskal Kontseilua.

La Ley 5/1988, de 19 de Febrero, de la Cultura Física y el Deporte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su Título IV, Capítulo IV, crea el Consejo Vasco del Deporte como órgano superior de asesoramiento, consulta, seguimiento y debate; siendo su objeto servir de instrumento tanto para la coordinación y colaboración de las distintas Administraciones Públicas del País Vasco, como para la participación de los deportistas, a través de sus entidades representativas, en la elaboración y desarrollo de la política deportiva.

El Consejo Vasco del Deporte, determina la Ley en su Artículo 55.2, estará integrado por expertos designados, en razón a su competencia, por el Gobierno Vasco, y por representantes de las Administraciones Autónoma, Foral y Municipal del País Vasco, y de las Federaciones Deportivas.

Así mismo la Ley dispone que su composición concreta, sistema de designación de miembros, organización y régimen de funcionamiento y competencias se fijarán reglamentariamente, en consecuencia,

DISPONGO:

Artículo 1.- El Consejo Vasco del Deporte-Kirolaren Euskal Kontseilua, es el órgano superior de asesoramiento, consulta, seguimiento y debate sectorial de la Administración en asuntos que afecten a la fijación, desarrollo y funcionamiento de la política físico-deportiva y de los servicios inherentes a la misma.

Artículo 2.- El Consejo Vasco del Deporte-Kirolaren Euskal Kontseilua, estará adscrito al Departamento de Cultura y Turismo.

Artículo 3.- 1. El Consejo Vasco del Deporte-Kirolaren Euskal Kontseilua, será presidido por el Consejero de Cultura y Turismo y tendrá la siguiente composición:

- a) Dos vocales-expertos, designados por el Consejero de Cultura y Turismo entre personas que cuenten con una amplia experiencia en el ámbito deportivo.
- b) El Viceconsejero de Juventud y Deportes.
- c) El Director de Deportes.
- d) El Director del Instituto Vasco de Educación Física.
- e) Un representante del Departamento de Sanidad y Consumo, designado por el Consejero titular del mismo.
- f) Un representante del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, designado por el Consejero Titular del mismo.
- g) Un representante de cada una de las Diputaciones Forales existentes en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, designados por el Diputado de Cultura respectivo.

h) Euskadiko Udal Administraziooko bi ordezkari, Euskadiko Udalen Elkarteak izendatuak, erakunde hori denez errepresentatiboena.

i) Kiroletako Euskal Federazioen hamahiru ordezkari, honelaxe banatuak: zazpi ordezkari, modalitate olinpikoetako Federazioek izendaturikoak; lau ordezkari, modalitate ez-olinpikoetako Federazioek jarritakoak; eta bi ordezkari, euskal kiroletako Federazioek izendaturikoak.

2. Kultura eta Turismo Sailburuak, Saileko teknikarien artean, Kirolaren Euskal Kontseiluko Idazkari izango dena aukeratu du. Idazkariak, hizpidea izango du baina ez boturik.

4. *Atala.* Kirolaren Euskal Kontseiluak bere bilkuretara, bertan azter daitezten gaitan adituriko pertsonak bertaratu ahal izango ditu. Aditu hoiek, hizpidea bai baina ez dute boturik izango.

5. *Atala.* 1. Izendapenezko bokalen agintaldia lau urtekoa izango da; lau urteak igaro ondoren berriro aukeratu ahal izango dira lehengoko ber-berak.

2. Kirolaren Euskal Kontseiluko kideak izendatuko dituzten entitate edo organismoek, edozein unetan iraungi arazi ahal izango dituzte izendapen horiek.

3. Hilketak, ezintasun, kide izaerari uko egin, edo beste edozein arrazoirengatik toki hutsik geratuz gero, gehienez, hiru hilabete igaro baino lehen bete beharko da.

6. *Atala.* 1. Honako hauek izango dira Kirolaren Euskal Kontseiluaren egitekoak:

a) Kirolariak «goi-mailako»-tzat jotzeko erabiliko diren erizpide eta baldintzei buruzko argibideak ematea.

b) Kiroletarako Zuzendaritzak egin eta argitaratutako Euskal Herriko goi-mailako kirolarien zerrenda eguneratuei buruzko argibideak ematea.

c) Ondoko gaiak sustatu, kudeatu eta araupetu asmoz Eusko Jaurlaritzak gara ditzan ekintzetan aholkuak eskaintzea:

- Kirolariari lagundu eta aholkuak emateko, monitorea, entrenatzeileak, arbitro-epaileak eta gainerako lanarigo tekniko espezializatuaren gaikuntzarako.

- Kirol eta teknika alorreko sorospen-egitarauak gauzatu eta burutzeko.

- Maila guztietako kirol espezialitate, homologazio eta titulazioei buruzko arauetarako.

d) Federazioen artean, beren zeregitekotan, sor daitezten arazoak konpontzeko har daitezten erabakien berri ematea Kiroletarako Zuzendaritzari.

e) Euskadiko kirol ekipamenduetarako jokabide sektorialak gauzatzekoan aholkuak ematea Eusko Jaurlaritzari.

f) Eusko Jaurlaritzako Kiroletarako Zuzendaritzak aurkez diezazkion kirol arazoek ezagutu eta horiei buruzko argibideak ematea.

g) Euskal Federazioen eraketa prozesu orotan erizpena ematea.

2. Kirolaren Euskal Kontseilua elkarlanean arituko da Lurralde eta Udal Komiteekin eta baita Euskal

h) Dos representantes de la Administración Municipal de Euskadi, designados por la Asociación de Municipios Vascos-Euskadiko Udalen Elkarteak, como más representativa.

i) Trece representantes de las Federaciones Deportivas Vascas distribuidos del siguiente modo: Siete designados por Federaciones que practiquen modalidades olímpicas, cuatro por Federaciones dedicadas a modalidades no olímpicas y dos por Federaciones practicantes de modalidades deportivas autóctonas.

2. El Consejo Vasco del Deporte contará con un Secretario que será designado de entre los técnicos del Departamento de Cultura y Turismo por el Consejero Titular del mismo y actuará con voz pero sin voto.

Artículo 4. El Consejo Vasco del Deporte-Kirolaren Euskal Kontseilua podrá recabar la participación en sus sesiones, de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que actuarán con voz pero sin voto.

Artículo 5.- 1.-El mandato de los vocales de designación tendrá una duración de cuatro años, finalizado el cual, podrán ser reelegidos.

2. El nombramiento de los vocales del Consejo Vasco del Deporte podrá ser revocado, en todo momento, por parte de las entidades u organismos que los hubiesen designado.

3. Las vacantes que se produzcan por causa de defunción, incapacidad, renuncia o similar, serán cubiertas en el plazo máximo de tres meses.

Artículo 6.- 1. El Consejo Vasco del Deporte tendrá las siguientes funciones:

a) Informar sobre los criterios y condiciones que permitan calificar a un deportista como de «alto nivel».

b) Informar las relaciones actualizadas de los deportistas de «alto nivel» del País Vasco que elabore y publique la Dirección de Deportes.

c) Prestar asesoramiento al Gobierno Vasco en las actuaciones que este acometa en orden a impulsar, gestionar, y ordenar:

- La formación de monitores, entrenadores, jueces-árbitros y demás personal técnico especializado en el asesoramiento y ayuda al deportista.

- La elaboración y ejecución de programas de asistencia técnico-deportiva.

- Las normas sobre especialidades, homologaciones y titulaciones deportivas de todos los niveles.

d) Informar a la Dirección de Deportes en relación con las decisiones que adopte con objeto de resolver los conflictos que se puedan suscitar entre las distintas federaciones en el ejercicio de sus funciones.

e) Asesorar al Gobierno Vasco en la elaboración de las directrices sectoriales de equipamientos deportivos de Euskadi.

f) Conocer e informar sobre cuantas cuestiones deportivas le fueren presentadas por la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco.

g) Informar en todos los procesos de constitución de Federaciones Vascas.

2. El Consejo Vasco del Deporte coordinará su actuación con la de los Comités Territoriales y Municipi-

Herriko Lurralde Historikoeak eta Udalek era ditzaten antzeko organoekin ere.

7. Atala. 1. Kontseiluak Ohizko eta Ez-ohizko bilkurak egin ahal izango ditu.

2. Ohizko Bilkurak lau hilabetez behin egingo dira.

3. Ez-ohizkoak, Presidenteak egoki deritzon edo Kontseilukideen %50ak eska dezanean izango dira.

4. Kasu batean zein bestean, Presidenteak egingo du bilkuretarako deia, batzarrerako jarritako data baino zazpi (7) egun lehenago gutxienez.

8. Atala. Kultura eta Turismo Sailburuak Erabaki bidez emango du Kontseiluaren funtzionamendua eta erabakiak hartzeko sistema araupetuko duen Barne-Errejimenaren Arautegia.

9. Atala. Kontseiluaren eratze eta funtzionamenduak sortaraz ditzan gastuak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saileko aurrekontuetako diru-izendapen baten kontura jeango dira.

10. Atala. Kontseilukideek, indarrean dauden xedapenen arabera bidai eta egun sariak jasotzeko eskubi-dea izango dute.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura eta Turismo Sailburuari agintea aitortzen zaio, Dekretu hau burutu eta garatzeko behar besteko xedapenak eman ditzan.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Kultura eta Turismo Sailburuak Dekretu honetako 8. Atalean aipatzen den Barne-Errejimenaren Arautegia ones dezan artean, Kirolaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendu eta erabakiak hartzeko errejimena 1958ko uztailaren 17ko Administrazio-Prozeduraren Legeko I. Izenburuko II. Atalburuan ezarritakoari lotuko zaio, Dekretu honek arautzen ez duenerako.

AZKEN XEDAPENA

Honako Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun berean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1989.eko urtarrilak, 24.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura eta Turismo Sailburua,

JOSEBA ARREGI ARANBURU.

pales y órganos análogos que puedan crear los Territorios Históricos y los Municipios del País Vasco.

Artículo 7. 1- El Consejo podrá celebrar Sesiones Ordinarias y Extraordinarias.

2- Las Sesiones Ordinarias se celebrarán con una frecuencia cuatrimestral.

3- Las Extraordinarias se llevarán a cabo cuando el Presidente lo considere oportuno o se lo solicite la mitad de los miembros del Consejo.

4- Tanto en uno como en otro caso, las sesiones serán convocadas por el Presidente con una antelación mínima de siete (7) días.

Artículo 8. - El Consejero de Cultura y Turismo dictará mediante Resolución el Reglamento de Régimen Interno que regulará el funcionamiento del mismo y el sistema de adopción de acuerdos.

Artículo 9. - Los gastos que se originen con motivo de la creación y funcionamiento del Consejo, serán a cargo de la correspondiente partida, que se incluirá en los presupuestos del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

Artículo 10. - Los miembros del Consejo tendrán derecho a gastos de viaje y dietas según las disposiciones vigentes.

DISPOSICION ADICIONAL

Se autoriza al Consejero de Cultura y Turismo para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

DISPOSICION TRANSITORIA

En tanto en cuanto el Consejero de Cultura y Turismo apruebe el Reglamento de Régimen Interior al que se refiere el Artículo 8º del presente Decreto, el funcionamiento del Consejo Vasco del Deporte-Kirolaren Euskal Kontseilua, así como el régimen de sus acuerdos se ajustará a lo dispuesto en el Capítulo II del Título I de la Ley del Procedimiento Administrativo de 17 de Julio de 1958, en lo que no contraiga este Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de enero de 1989.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

EL Consejero de Cultura y Turismo,

JOSEBA ARREGI ARANBURU.